

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Jendaurrean jartzea uraren, zaborren eta estolderiaren 2018ko bigarren hiruhilekoko erroldak

Okondoko udalerriko ur hornikuntza, estolderia eta zabor bilketa zerbitzuen tasen 2018ko bigarren hiruhilekoko erroldak egin dira, zeinak alkatearen 2018ko uztailaren 9ko dekretu bidez onartu baitira.

Errolda jendaurrean egongo da hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eragindako zergadunek errolda aztertu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izateko. Interesdunek espedientearen udal bulegoetan (Zudubiarte kalea, 2) aztertu ahal izango dute, 10:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onartzen dituen egintzaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, haiek jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

Borondatezko aldiaren ordaintzeko epea hilabetekoa izango da; hain zuzen ere, 2018ko abuztuaren 10etik irailaren 10era artekoa.

Borondatezko aldiaren ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazteko aldia hasiko da berez eta besterik gabe. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatzea, 6/2005 Foru Arau Orokorrak, zergenak, 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Ordainketak banku erentitateetan helbideratuta dauzkaten zergadunek ez dute inolako ku-deaketarik egin beharrik, eta bankuak 2018ko abuztuaren 22an egingo die kargua.

Ordainketak helbideratu gabe dituzten zergapekoei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara), dirua Nafarroako Rural Kutxan sar dezaten.

Okondo, 2018ko uztailaren 9a

Alkatea

SERGIOTATO EGUREN